

ENPRESARIEN KONFIANTZA

Deseskalatzeak enpresen konfiantza hobetzea dakar


Bi hilabetez beherakada biziak jaso ondoren, maiatzean euroaren eremuko PMI indize konposatua 30,5 puntutan kokatu zen, gutxi gorabehera apirilko datua baino 17 puntu gorago eta martxoko datua (29,7) pixka bat gaindituta. Azken bi hilabeteetako mugimenduen simetria horrek ez du esan nahi hurrengo datua jada hedapen eremuan egongo denik, V itxurako susperraldi bat osatuz.

Irudi horretatik urrun, espero izatekoa da hurrengo hilabeteetan hautemango ditugun hobekuntzak apalagoak izatea.


Bi sektoreek hobera egin dute aurreko hilabetearekin alderatuta, baina aurrerapena nabarmenagoa da zerbitzuetan; hain zuzen ere, pandemiari eusteko eta urruntze sozialerako neurriek gehien kaltetu duten sektorea da.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2020ko MAIATZA
30,5




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Eurogunerako deskribatu den portaera eredia bera osatzen duten herrialde nagusietan errepikatzen da; Alemaniako eta Frantziako balioak 31,4 eta 30,5 dira, hurrenez hurren. Erresuma Batuak ere parte hartzen du mugimendu horietan, eta bere indizea %28,9an dago.

Bestelakoa da Europakoak ez diren ekonomia garatuen bilakaera, ezkortasunak ez baitzuen hain eragin handirik izan. Japoniaren kasuan, PMI konposatua 25,8raino soilik murriztu zen, eta maiatzeko susperraldia bi puntu baino gutxiagokoa izan da. AEBetan, apirileko 27,0 puntuek markatu zuten gutxienekoa, eta maiatzean hamar puntu baino gutxiago berreskuratu ditu.


PMI KONPOSATUA. JAPONIA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.